

Gu Arnot Eriz Garaizabal, Ane Gómez López, Leire Rementeria Merino, Maialen Madariaga Gezuraga eta Jokin Martínez Salazar gara eta goi-mailako Gizarteratze teknikari izateko bigarren ikasturtea egiten ari gara Durangoko Ibaizabal ikastolan. Gure enpresaren izena *Sustraiak* da. *Sustraiak Zentro Alternatiboa* aisialdi zentro bat da baina ez da ohiko aisialdi zentroa, izan ere zentro honetan eskola tradizionalen lantzen ez diren aspektuak landuko ditugu, adibidez, Naturaren zaintza. Gure oinarria Natura izango da. Teoria eta praktikaren bitartez, haurrak, Naturaren kontzeptua errazago barneratuko dute eta ondorioz, eguneroko bizitzan praktikan jartzeko aukera izango dute.

Gure enpresaren izenak berariazko esanahia dauka. *Sustraiak* zuhaitzaren hazkundearen oinarri dira, eta horregatik ematen diogu izen hau. Metaforikoki, *sustraiak* ikasketak izango lirateke eta *zuhaitza*, aldiz, pertsonak. Beraz, haurren etorkizuna oinarri sendoekin eraiki behar da eta hori izango litzateke gure helburua, hain zuzen ere: natura modu integralean barneratuta duen haurra heztea.



HEZKUNTZAZ GOZATU, NATURA BERMATU.